

**KLAUSTRO TERESIARREKO  
LIRIKA ETA KOPLAGINTZA**

***Bertsolari* aldizkariak ideia pizturik**

*Bertsolari* aldizkariaren 114. zenbakiak, 2019ko udakoak, piztu dit izenburuko gai honetaz gogoeta egin eta idazteko txinparta. Izenburu luze hau du zenbaki horrek: bertsolaritzaren genealogia feministak berrogeiko txikian. 18. mende amaierako Bizenta Mogeekin hasten da zerrenda; tartean beste izen asko, Iparraldeko eta Hegoaldeko.

Ohartu naiz, gizonetzko bertsolari ospetsuak ziren familietan bazirela emakume bertsolariak edo bertso-jartzaileak. Esaterako, Pello Errotaren familian, haren bi alaba (Mikaela Elizegi eta Josepa Inazi Elizegi) eta baita Pello Errotaren arreba Sabina Elizegi ere, bertsotan oso trebea omen zen. A. Zavalak, 1965ean, emaniko lekukotasuna dakart hona, neure erara jarririk: *Sabinak den-dena bertsotan erantzuten omen zuen. Edozer gauza esan, eta hark daka, bertsotan erantzuna. Ezagutu zuten guztiak diote, gizasemea izan balitz bertsolaria izango zela, Pello bere neba bezala.*

Gauza bera gertatzen zen Xenpelarren familian ere. Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar* ezagunaz gain, beraren arreba ere, Maria Luisa Petriarenak ere, bertsotan egiten zuen.

“Gainera, Juana Joxepa Bengoetxea *Andre Haundia* (Erreterria, 1861-11-22) ere bertsolaria eta bertso-jartzailea

zen. Egun ez da haren bertsorik inon geratzen. Juan Frantzisko eta Maria Luisaren lehengusua zen.

Maria Luisaren alaba zen Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelarri* esker iritsi zaizkigu, ordea, osaba Juan Frantziskoren bertso asko. Besteak beste, ‘Aizak hi mutil, mainontzi’ eta ‘Pasaiako plazatik’ ezagunak. Amaren bertsotarako gaitasuna eta irakurzaletasuna zituela esan ohi da.

Etxea ez ezik, lantegia eta jostundegia ere izan zituen bertso-leku Joxepa Antonik. Bertso ezagunenak 1902an jarri zituen” (ik. goian aipaturiko *Bertsolari* aldizkariaren zenbakia).

Zizurkilgo Otañotarren artean ere baziren emakume bertsolari eta bertso-jartzaileak. Pello Mari Otaño ospetsuaren aurretik, Joxe Bernardo Otaño *Errekalde zabarra* izenaz ezaguna, garai hartako bertsolari hoberenekin parez pare ibilirikoa zen, Xenpelar, Pello Errota, Txirritarekin... ibilirikoa. Joxe Bernardo *Errekalde zabarra*, Pello Mari Otaño bertsolari eta bertso-jartzaile bikainaren osaba zen; gainera, Joxe Bernardok bazuen alaba bat ere, bertsotan poliki moldatzen zena: Plazida Otaño.

Oraindik beste bertsolari familia bat gehiago dakarkigu aipaturiko *Bertsolari* aldizkariak: Donostiako Artolatarrak. Ramon eta Pepe Artola anaiak eta Ramon Artolaren alaba, Rosario Artola. Honetaz, orain dela hainbat urte, hemen *Karmel* aldizkarian, idatzi genuen. “Emakumeak bertso eta olerkigintzan” zuen izenburu (ik. *Karmel* 1996-2).

Aurrera goaz aldizkariko orrialdetan barrena eta Iparraldeko hainbat izen ere ikusi ditugu; eta, geure egunetako plazetako emakume aitzindariak agertzen dira ondoren: Kristina Mardaras Sedrun, Arantzazu Loidi Garitano, Estitxu Arozena Albizu, Iratxe Ibarra Foruria... Gero, zorionez, gizonezkoen parera hurbilduz joan dira poliki-poliki, kopuruz zein mailaz, azken urteotako txapelduna ere Maialen Lujanbio Zugasti izanik.

Azkenik, zerrenda horretako lehenengoetan ageri zaizkigu bi moja: Justina Aldalur eta Sebastiana Gesalaga *Zaldubi*, *Sor Niño Dios*. Hona, hitzez hitz aldizkariak hauetaz dioena:

“Justina Luisa Aldalur Iruretagoiena Aiako baserri batean jaio zen 1922an eta baserri horretan, igande arratsaldetan, eskale batek saldutako bertsopaperak kantatzeko ohitura zegoen. Bere gurasoak ia analfabetoak zirenez, errezitatzeko lana berari zegokion eta azkenerako buruz ikasten zituen bertsoak.

Gerora, komentuko lehen urteetan, Aldalurrek ezin izan zituen bertsoak sortu eta errezitatu, abadesak bere bertsoak zentsuratu zituelako. Komentutik kanpora ere ez zuen oihartzun handiegirik izan. Alabaina, erlijioarekin lotutako hainbat sariketetan aipamenak lortu zituen. 1956an Arantzazuko Ama Birjinaren inguruko festa bat ospatzen zenez, Zarautzen, lehen eta bigarren saria emakumeei banatu zitzaizkien: Iñaxi Etxaberi eta Sor Justina Aldalurri, hurrenez hurren. Gertaera hau ez zen ustekabea igaro. Basarrik, garaiko bertsolaririk ospetsuenetakoak, *Aránzazu* aldizkarian honela baitzioen: ‘Gure irakurleak ohartu bezala, garaipena guztiz femeninoa izan da. Gure herrian beti existitu izan dira emakume bertsolariak eta beraiei buruzko anekdotario aberats bat ere existitzen da. Sexuarekin lotutako aginduengatik ez dute inprobisatzaileen jendaurreko saioetan parte hartzen, baina horrek ez du esan nahi ez daudenik’.

Sebastiana Gesalaga, *Sor Niño Dios* izenez ezaguna, Juan Bautista Gesalaga *Zaldubi* bertsolariaren alaba zen. Esan daiteke aitari esker ikasi zuela bertsotan. Hala ere, bertsotan hobeu asmoz, bere komentukide zen Sor Justina Aldalurrengana jo zuen. Azken honen laguntzari esker, gai erlijiosoak landu zituen batez ere”.

### **Monasterio teresiarreko tradizioa**

Sarrera luze eta digresio antzeko honen ondoren, itzul gaitezen izenburuak agintzen duen harira. Jakina, orain jorratu

nahi dugun klaustro hauetako lirika eta koplagentza ez da euskarazkoa, gaztelaniazkoa baizik. Gorago aipaturiko Justina Aldalur eta Sebastiana Gesalaga bi mojen kasua salbuespena litzateke, hauek Gipuzkoako bertsolari-tradizio jatorrenetik baitzetozen.

Klaustroak, kontenplazioak eta horma zahar eta sendoei zerien espiritu teresiarrak, badirudi berez-berez zeramatzala lirikara eta koplagentzara. Tradiziotik zetorkien hori guztia.

Rafael Zafrak, Urrezko Mendearen ikerketa-taldeko Nafarroako Unibertsitateko irakasleak, hau dio, neure eskuz eta neure erara euskarara itzulirik: “Idazlan honek lehen mailan eta azpimarraturik jartzen du, santa Teresak eraberrituriko Karmeldarren bizitzan poesiak eta musikak izan zuten garrantzia”.

Begira diezaiozun, beraz, santa Teresaren inguruan sorturiko giroari. Honela diogu haren olerkien atalaren sarreratzat:

“Bere burua olerkarizat izan ez arren, badu olerki fin, eder eta goi-mailakorik. Bera ere bere emaitza ikusirik pixka bat harriturik dagoela dirudi, nola ondu ahal izan dituen berak halako ahapaldiak, bere burua ez baitzuen horrenbesterako gai ikusten; gehienbat koplari oparo eta bertsogile trebetzat izan zezakeen. Baina badu berak horren erantzuna: goi-grazien eraginpean idatziak direla uste du. Jainkoaren presentzia miragarriak haren espiritua hartua zuen eta horren eraginpean onduak omen dira poema horiek. Honela dio berak: ‘Nik eza gutzen dut pertsona bat [Teresa bera], poeta izan ez arren, laster batean sentimendu handiko koplak egiten zituena bere pena egoki adieraziz, ez adimenaz eginak’

Dena dela, hark hori esan arren, haren garaiko eta adiskide minek diote, olerkari-ezpala zuela; hau da, hori berezkoa zuela; ez goi-grazien eraginpean zegoenean soilik, bestela ere bai. Haren izaera aberatsaren dohain bat zela, hainbat egoaratan, ederraren distirara irekia eta sentibera baitzen beti. Haren kapilau leialak, Julian Ávilakok, miretsirik aitortzen du: ‘... koplak on-

tzen ditu, eta oso onak, ongi zekielako egiten'; eta ama Maria San Joserenak, letragile eta olerkariak, dio, era harrigarrian maitatu zituela erromantze eta koplak; beraiek bizi zituzten gertakariak ematen ziotela haiek ontzeko argi eta bultzada (ik. Libro de recreaciones, ed. Archivo Silveriano, Burgos).

Prosaz idazten zuenean bezala, Teresak ez du kezka akademikorik. Erraz eta berez-berez idazten du, berak ongi eza gutzen duen eta jainkozko airea ematen dion herri-lirikaren estilo hoberenean. Haren olerkien gaiak askotarikoak dira: mistikoak, umorezkoak, gabon-kanten airera eginak, familiako edo komunitateko gertakari eta jaien harian onduak eta batari edo besteari eskainiak... Guganaino iritsi direnek multzo txikia egiten dute. Lekukotasun askotatik dakigu, eta pentsa genezake, askoz ere gehiago ondu zituela.

Gehienetan, unean-uneko gertakarien harian, komunitateko jaiak alaitzeko, karmeleko liturgi ospakizunak janzteko... onduak zirenez gero, ez zitzaien garrantzirik ematen eta eskuarki mojek ez zituzten gordetzen. Hori da, tamalez, Santaren olerkien autografoak guganaino ez iristearen arrazoia.

Zenbait lekukok poematxo hauek ondu ziren giro edo ingurumaria aipatzen dute. Koplak moldatzerakoan, doinua ekarri ohi zuen gogora eta baita doinuari zegokion dantza ere. A. Riberak xehetasun atseginak ematen dizkigu horretaz: 'Egunero jostatzeko aldi jakina izan zezatela nahi izaten zuen, eta santuen jaietan kanta zezatela eta egin zitzaatela koplak. Baina guztian etsenplua emateko joera zuenez gero, berberak egiten zituen eta mojekin batera kantatzen, inolako musikatresnarik gabe, baina erritmoa markatu eta haiei nolabaiteko kadentzia harmoniatsua emateko, esku-zarta arin eta leunak joz' (*Vida de Santa Teresa* I. 4, 24. kap.).

Gabon poematxoetan erakusten du herri-airea, gainerakoe-tan baino hobeki. Atsegin zitzaizkion eta Gabonak hurbildu ahala, beste komentuetako mojei eskatzen zizkien bidaltzeko,

baita Lorentzo Cepeda bere nebari ere; hona hemen honi idatziriko ataltxo bat: ‘Hainbeste mesede egiten didalako ez dakit zer bidali, nik neuk egin nituen gabon koplak horiek izan ezik; aitor-entzuleak agindu zidan ahizpak alai nitzala, eta gau hauetan haiekin izan nintzen eta ez nekien nola eta horrela egin nuen. Doinua atsegina dute, Frantzisko txikiak kantatuko balu’ (*Gut.* 173, 14). Eta gutun beraren amaierarantz honela: ‘Uste nuen berorren gabon koplak bidaliko zigula, hauek ez baitute ez bururik ez hankarik, eta guztia kantatzen dute’. Sevillako ama prioreari, Maria San Joserenari, idazten dio: ‘Konaturatu naiz ez didatela bidaltzen inolako gabon koplarik; ez zuten, bada, aukera gutxi izango; izan ere, berorien etxean era onez poztu daitezzen zalea naiz ni’ (*Gut.* 331, 12)”.

Teresaren garaian, aurreko lerroetan aipatzen den Maria San Joserena, badakigu hainbat iturritatik, poeta eta koplagile oso ona zela. Guganaino iritsi diren Teresaren olerkien artean bada bat, euskarazko bertsioan *Dohatsua bibotz maitemindua* izenburu duena, hamaika silabakoa. Teresaren olerkien artean, metrika horretako bakarra denez gero, askok zalantzan jarri zuten haren originala zenik eta Maria San Joserena izan zitekeelako ustea zabaldu zen. Hortaz, Maria San Joserena (Salazar) bazen norbait lirika arloan eta bazuen literatura adituaren artean nolabaiteko ospea.

Ana San Bartolome dohatsua ez zen letretako emakumea, baina Teresaren ondoan, guztian hari lagun egiten, gutunak idazten, haren gaixozain eta idazkari izanez, berez argia izanik, gauza asko ikasi zituen eta poematxoak idazten ere bai.

### **Doinuaren eta oroimenaren erabilera**

Goiko aipamen hartan ikusten denez, Teresa doinuaz baliatzen zen koplak eta bertsogintzarako. Garai hartan eta herri-tradizioan zabal zebiltzan doinuak ziren. Doinu ezagun haiek oinarriztat hartuz, herri-letra profanoen ordean, beraiek esaten

zutenez, jainkozko erakoak, hau da, erlijiozko letrak sortuz asmatzen zituen koplak eta bertsoak; ez hori bakarrik, doinu hari zegokion dantza ere adierazten zuen Teresak. Azken batean, gure koplari eta bertsolari zaharrek ere, bertso gintzako teoriarik jakin gabe, hainbat herri-aire eta kanta erabiliz, asmatzen zituzten koplak eta bertsoak; neurria ere doinuak agintzen zuena zen. Sarri entzun izan nion Jon Lopategiri, lehengo bertsolari zaharrek ez zekitela zer ziren *zortziko handia* eta *zortziko txikia*. Eta gaijartzaileari galdetzen ziotela: “Zer, puntu luzean ala motzean?”.

Argi dago herri-doinuez eta herri- kantez baliatzen zirela santa Teresa eta orduko poeta nahiz koplagileak. Adibide argi bat, santa Teresaren poesia ospetsua da: *Vivo sin vivir en mí*; euskarazko bertsioan, *Neugan bizi gabe biziz*. Hori maite-kanta profano baten errepika edo leloa zen, Teresak jainkozko letraz edo olerkiz jantzi zuena. San Joan Gurutzekok ere, errepika edo lelo bera erabili zuen, jainkozko erara jantziz ahapaldi sakon eta ederrak egiteko.

Orduan ere, ahozko teknika erabiltzen zuten askotan. Doinuaz eta oroimenaz baliatzen ziren, hau da, poesia eta koplak doinuari jarraituz, barruan sortu eta sorturikoa oroimenean gorde. Alabaina, gure bertsolariak bezala, jendaurrean sortzea eta kantatzea aldi berean eta bat-batean egin beharrean, idatzi egiten zituzten albait lasterren. Beraz, esan dezakegu, gehienbat, bi tekniken arteko zerbait zela.

### **San Joan Gurutzekoren kasua**

Hemen klaustro teresiarren poesia eta koplagintzaz ari gara; beraz, Teresaren alaben poesia eta koplagintzaz. Baina zilegi bekit, bide batez, san Joan Gurutzekoren adibide bat aipatzea. Hark, ezinbestean, idazteko gailurik ez zuelako, sortu zituen buruan eta gorde oroimenean, Toledoko komentuko

kartzelan zegoenean, poema zoragarri batzuk. Honela diogu haren *Poesía* liburuaren sarreran:

“Toledoko komentuan karmeldar oinetakodunek eduki zuten preso; estua, iluna, hilobi bat bezain itogarria zen ziega ikaragarri batean. Berez, kanpotik zetozen fraideentzat, ostatuz edo pasadan zeudenentzat, eginiko komuna zen, orain san Joan Gurutzekoren ziega bihurtua. Sei oin zabal, eta hamar luze; goian gezileiho bat zuen hiru hatzekoa; han nekez irakur eta idatz zitekeen ezer. Libururik ez zuen eraman hara gure Santuak, Orduen Liturgiako liburua (Brebularioa) izan ezik. Gainera, ez zioten eman ez paperik, lumarik ez tintarik. Neguaren hasieran sartu zuten eta bederatzi hilabete eman zituen bertan, ihes egin zuen arte. Toledoko neguko hotz gogorra eta udako bero kiskalgarria probatu ahal izan zituen. Kartzelazainak ostiral guztietan jaisten zuen komunitateko jantokira, zigortu gisa, guztien aurrean lotsaria jasan zezan, eskapulariorik eta txanorik gabe; jantokiaren erdian lurrean eseririk barau egin behar zuen ogi hutsa eta ura, amaieran aita priorearen zentzaldi latza eta zigorkadak jasotzeko...

Nola idatzi poema horiek ziega hartan eta baldintza haietan? Ez, ez zituen idazten; ezin idatzi, ez baitzuen idazteko modurik ez tresna materialik. Buruan sortzen zituen, eta bihotzean eta buruan buelta asko emanaz, oroimenean gorde altxor preziatu gisa. Lehenengo hil haietan dena zen bekozkoa, mehatxua, iraina. Ez zuen inon aurkitzen erruki ez maitasun izpirik. Bai, egundo hutsik egiten ez duena bere barru sakoan zen, ezkutaturik, ihes egin balio bezala. Jesusek gurutzean esandako hitzak etorriko zitzaizkion gogora: *Ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu bertan behera?*

Sei hilabete igaro ondoren, zaintzaile berria jarri zioten. Fraide gazte on eta errukitsua. Honek aurreko zaintzailearen jokaera gogorak alde batera utzi zituen, tratu askoz ere hobea eta duinagoa emanaz preso gaixoari. Aldatzeko arropa



garbiak ekarri zizkion, zatika urratzen eta erortzen zitzaizkion zaharrak bazterturik; noizbehinka ondoko galeriara ateratzen zuen, pixka bat ibili eta haize garbia har zezan. Berehala ohartu zen zaintzaile gaztea kartzelan zeukatena santua zela. Joan Gurutzekok konfiantza hartu zuen harekin eta behin papera, luma eta tinta eskatu zizkion; deboziozko gauzak zituela buruan eta, entretengarri, haiek paperean jartzea nahiko lukeela. Ekarri zizkion eskatutakoak eta horrela jaio ziren idatziz Joan Gurutzekoren poemarik ederrenetakoak”.

Zein ziren buruan sortu eta oroimenean gorde zituen poemak, zerez idatzi izan zuenean idatziz jarri zituenak?: *Kantu Espiritualaren 31 kanta (1)*. *Ongi dakit nik iturria non den, / gaua izan arren (Que bien sé yo la fonte que mana y corre, / aunque es de noche) (8)*. *Erromantzeak (9)*; hauek Hirutasun Santuaz bederatzi erromantze dira, edo batzuek, bederatzi atletan idatziriko erromantze bakartzat kontatzen dute, eta “Super flumina Babilonis” salmoaz erromantze bat (10). Hauetaz lekuko zuzenak daude; Magdalena Espiritu Santuaren lekukotasuna eta Ana San Albertorena azpimarratzen dira batez ere Toledoko kartzelatik atera zituen poesia-lanez. Beraz, san Joan Gurutzekok, paperean jarri aurretik, buruan sortu eta oroimenean gorde zituen poema zoragarri haiek. Karmeldar oinetakodunen ziega hartatik ihes egin berri, ezkutaturik egon zen moja karmeldarren klausuran, buruz eta bat-batean kantatu edo errezitatu zizkien kartzelan onduriko poema haietakoren batzuk.

Tradizio hau bizi-bizia zen; esaterako, Kalagorriko moja karmeldarren artean ageri zaigu sor Ana Hirutasunarena. Bataioizenez Ana de Arellano eta Navarra zen (1577-1613), Bornosko dukearen alaba, Alcanadren jaioa. Berak bizitzako azken urteetan bere idazki guztiak erre zitzatela eskatu bazuen ere, 19 so-neto eder salbatu ahal izan ziren, Valladolidetik ama priore izateko Kalagorrira etorri zen moja poeta on baten eskuetara etorri zirelako. Ama priore hau Maria Zezilia Jaiotzako zen; honek, garai hartan, Kalagorriko Anak baino izen handiagoa zuen poe-

magintzan; eta luzaroan uste izan zen Anaren sonetoak Valladolideko moja honenak zirela, baina ama priore honek berak argitzen du zalantza eta zuzentzen oker hori, soneto haiek Anak eman zizkiola argi eta garbi aitortuz. Gainera, Kantabriako artxi-bo pribatu batean agertu zen poema horien originala. Beraz, Kalagorriko komunitate berean bizi ziren zenbait urtetan bi moja karmeldar poeta maila handiko.

### **Geroko mendeetan**

Moja Karmeldar Oinutsen klaustroetan tradizio liriko horrek aurrera egin zuen geroko mendeetan ere. 19. mendearen azkenaldira arte bai gutxienez, santa Teresatxo Lisieuxkoaren garaian ageri denez. Teresatxoren odoleko ahizpak, ama Ines Jesusenak (Paulinak), egiten zituen, moja gazteen belo-hartze, profesetarako eta etxeko jaiak alaitzeko et halako egunei giro berezia emateko. Geroago, Teresatxok berak hartu zion txanda, poematxo haiek sortzen ez ezik, baita antzerkiak idatzi eta antzesten edo taularatzen ere.

Garai berean, pixka bat geroago, Dijongo komunitatean, santa Isabel Hirutasunarenak, bai prosaz eta bai bertsoz, idazlan mamitsu eta sakonak idatzi zituen eta poema ugari eta eder-ederrak. Eta ia gure egunetara etorririk, 20. mendean, santa Teresa Benedikta (Edith Stein), orain dela gutxi beste bi emakume santarekin batera san Joan Paulo II.a aita santuak Europako zaindari izendatua, ageri zaigu. Hona *Karmel* 1998-3, 223. zenbakian hartaz dioguna:

“Edith Stein filosofoa... zen eta idazlea..., baina komentuan idazki espiritual asko idatzi zituen, eta Karmelgo tradizioan ohi zenez, baita olerkiak ere. Edith berez-berez olerkaria ez bazen ere, olerkiak ere idatzi zituen, baita antzerki batzuk ere, bertsoetan, gehienetan mojek eta komunitateko zereginek horretara eraginda”.

Haren 20 olerki ezagutzen ditugu. Horietatik hiru hautatu eta argitaratu genituen goian aipaturiko *Karmel* zenbaki hartan, Julen Urkizak alemanetik gaztelaniara eta nik gaztelanitik euskarara itzulirik. Ez dugu emango olerki haien izenburu ez xeheetasunik, besteenik ere ez baitugu eman.

Ez dakigu gaur egun nola dagoen kontu hori Teresaren klaustroetan. Oraingo bokazio-eskasiar, beharbada, beste gauza batzuek izango dute lehentasuna; Teresaren garaian ere, baten aurreragokorik. Dena dela, uste dut, orain hain era sistematikoan ez bada ere, komunitate batzuetan badirela goietorri edo inspirazioari deika aritzen direnak eta letra ederrezko piezak ontzen dituztenak.

### **Azken gogoetatxoa**

Bakardadean, Jainkoaren kontenplazio eta gogoetari emanak, giro egokian bizi dira ez otoitzerako soilik, baita, hartarako gai direnak, lirika, koplaginza eta letrak lantzeko ere. Sentimenduen lorratzean eta irudimenean oharkabean pilatzen diren forma ederren harian bidaiatzeko.

Batzuetan ia berez eta erraz etorriko zaie, ura iturritik hara bezala, espiritu sentibera eta aberatsetik lumara. Santa Teresari hala etortzen omen zitzaizkion. Gehienek, ordea, ez dute izango halako etorri eta errastasunik. Ezkutuan, gordean eta lauso antzean duten barne-altxortegitik ateratzen saiatu beharko dute behin eta berrir. Bidaia asko egin beharko espirituaren sakonera, aurkituriko hoberena handik atera eta letrazko eraikina zizelkatzeko.

Hemen uzten ditut, irakurle, zuretzat landu nahi izan ditudan gogoetatxo hauek.

*Luis Baraiazarra Txertudi*